

BERRI OROKORRAK

2025eko urriaren 10ean

5. zenbakia

Palestinaren aldeko ekintzak

❖ Ostegunetan mobilizazioak ikastetxe guztietan

“Hezkuntza komunitatea Palestinarekin! Genozidioa STOP!”

Gure haurrak ere badira ekimenetik Hezkuntza komunitate osoa (langileak, ikasleak eta familiak) gonbidatu nahi dugu ostegunero Palestina pairatzen ari den genozidioa salatzen kontzentrazioak bultzatzera.

Ostegunero, **Agerialdeko patioan 16.30ean** elkartuko gara, urriak 2an hasita. Oraingoz 3 astez luzatuko da ekimena.



❖ Zapaten bilketa

Ikasturte honetan **Gure Haurrak ere Badira**-k deituta, EHko ikastetxe guztietan egingo den Palestinaren aldeko ekimen bat prestatzen gabilta. Horretarako ehunka zapata zahar behar ditugu eta etxean jada erabiltzen ez dituzuen horiek ekartzeko deia egiten dizuegu. **Pareak bere sokarekin edo brida txiki batzuekin lotuak ekarri, mesedez.** Ikastetxeko sarreretan jasoko ditugu. Aurrerantzean, zapata guzti hauek, Gure Haurrak ere Badira ekimenetan erabili ahal izango ditugu.

Bilketa urriaren 17a bitarte egingo da.

❖ Kamiseta elkartasun keinu gisa

Gure Haurrak ere Badira-k kamiseta bat aterako du eta ostegunero izango diren elkartasun egunetan jatzeko deia egiten du.

Urriaren 15eko greba deialdia

Datorren astean, urriaren 15erako Hezkuntza komunitateak egun osoko lanuzte orokorrerako deialdia egin du. Gazako genozidioa amaitzea eskatu eta kolonizazioarekin bukatuko duen "konponbide integrala" aldarrikatzeko da deialdi hau.

Udarregi Ikastolako langileen gehiengoa grebara batu da eta, beraz, egun horretan gobernutik jarritako irizpideek markaturiko gutxieneko zerbitzuak eskainiko dira Haur Eskolan nahiz Ikastolan. Gobernuko jakinarazpena jaso bezain laster, informazioa partekatuko zaizue.

Jangela zerbitzua

Gogorarazten da, norbaitek jangela zerbitzua erabili behar izanez gero edo izena emanda egonik ez bada zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinaraziko du gutxienez bezperan 13:00ak aurretik.




HAUR-HEZKUNTZA

Haur Eskolako jangela zerbitzuaren kostua

Irailari dagokion jangela prezioa, urrian kobratzen dena, egun soltekoa izango da, hau da, **8,5 euro** eguneko.

Urria eta uztaila bitartekoa 126 euroko/hileko izango da gehienez.

Menuaren deskontua 3€ eguneko izango da eta hori aplikatu ahal izateko usurbil@ikastola.eus edo haureskola@udarregi.eus helbideetara **idatziz** jakinaraziko da, **bezperan 13:00ak baino lehen**.



Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.



Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA

LEHEN HEZKUNTZA

Irteera kobrantza

❖ LH5. maila

LH5. mailako ikasleek Aiako Harrietara eginiko irteeraren kostua ikasturtean zehar 3 zatitan kobratuko da. Lehenengo zatia, **urriaren 13an**, astelehena, errezibo bidez egingo da eta **26,15 €** izango da.



❖ LH6. maila

LH6. mailako ikasleei Adarrara egindako irteeraren garraio-kostuaren kobrantza **urriaren 13an**, astelehena, egingo zaie. Guztira, **6,85 €** izango dira.

LH 1eko irteera

Datorren astean, eguraldiak laguntzen badu, San Estebanera egun osoko irteera egingo dugu LH 1ekook. Zuen seme-alabak ohar bat eramango du etxera eguna zehaztuz. Eskola ordutegia errespetatuko da (9:00-16:30).



DBH

“Zer egin menpekotasunaren aurrean (alkohola, mugikorrak, jokoa...) guraso bezala?”

Astelehenean, DBHko guraso zaretenontzat, aipatutako gai honen inguruan hitz egingo duen aditu bat izango dugu gure artean, **IZAR ARREGI**. Gaia interesatzen zaizuen guztiok gonbidatuta zaudete. Guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati esposatzeko/galdetzeko... aukera izango duzue bertan.

Noiz: Urriak 13, astelehena 17:00etatik 19:00etara (gutxi gora-behera).

Non: DBHko eraikina

